



Inauteriak

2024 TOLOSA Otsailak 8-14



agurra

Ostegun Gizenerako atzerako kontaketa aspaldi martxan bagenuen ere, herriko giroan antzematen da ate joka direla inauteriak. Iristear dira hilabete luzez mamitutako eta mimoz landutako ideia horiek erakusteko egunak.

Asko dira inauteriak bizitzeko erak: txarangaren batekin musika jotzea, edo doinu horiekin dantzatzea; karroza edo konpartsaren batean pertsonaia baten larruan jartzea; detailerik txikienarekin parodiatxo bat egiteko herriko edozein txoko baliatzea; barrea eragingo digun horren bila kalez kale ibiltzea... baita gainerakoek goza dezaten lan egitea ere.

Ezin uka etengabeko bilakaera bizi dutela inauteriek, baina norbere erara bizitzeko aukera aniztasun horrek egiten ditu aberasgarri gure

jaiak. Eta, nola ez, baita tolosarron parte hartze eta konpromiso zabalak ere: gure herriaren altxorra da hori.

Norbere erara bai, baina ez nolana: errespetuan eta elkarbizitzan oinarritutako jaiak nahi eta behar ditugulako, inolako eraso matxista eta xenofoborik gabekoak, inklusiboak, eta jaiak beste era batera bizi nahi dutenei ere begirunea azaltzen dietenak.

Alkate gisara biziko ditudan lehen inauteriak izango dira, eta horixe litzateke nire nahia: denok gozatzeko moduko egunak izatea. Inauteriak hasiko ditugun gogo, ilusio eta irribarre berarekin amaitu ditzagun, hurrengoan esperoan.

Ondo pasa eta gozatu, gora inauteriak!



Son muchas las formas de vivir el carnaval. Cada tolosarra tiene la suya propia, y es eso, precisamente, lo que hace que nuestras fiestas sean tan abiertas y originales. Cabe destacar también la alta participación y el compromiso de todo el pueblo.

Aunque las fiestas de carnaval evolucionan constantemente, quisiéramos que el respeto mutuo y la buena convivencia estuviesen siempre presentes; y, por supuesto, rechazamos rotundamente todo tipo de agresiones machistas y xenófobas.

Os deseo unos días de humor, fiesta y alegría. Gora inauteriak!

Andu Martínez de Rituerto
Alkatea

50.

urteurrena

Terete txaranga



Jaien inguruan dugun kulturaren ondorio ditugu bat-batekotasuna eta gatza, eta gure inauterietako beste gauza asko bezalaxe, horiei esker sortzen dira gure gogoan irauten duten eta gure jaietako «klasiko» bihurtzen diren ekimenak. Eta horretan, beti protagonista dugun musikak badu zerikusia. Hala, 1974ko inauteri-astelehenean, Urdiña Txikiko zenbait bazkidek «behin-behineko kioskoa» esaten genion egurrezko oholtza hartan bazkaldu zuten. Bazkalondoan, berriketan ari zirela, txaranga bat sortzea bururatu zitzaion. Esan eta egin. Gurasoek, seme-alabek eta abarrek eltzeak, eltzeen estalkiak, botilak eta elkartean harrapatu zuten guztia hartu, eta kalejira egitera atera ziren. Hurrengo urtean antzekoa egin zuten, baina bigarren aldi hartan, bazituzten musikari batzuk taldean. Aurreko urtean egindako ibilbidea egin, eta elkartera itzuli ziren.

Lehen bi esperientzia haien ondoren, musika ikasteko ideia eta grina piztu zitzaion, inauterietan kalean musika tresnak jotzen ibili nahi zuten-eta. Urdiñako sei bazkide murgildu ziren abentura hartan, eta Martín Martínez izan zuten irakasle.

Pieza batzuk jotzen ikasi, eta hurrengo urtean txaranga osatu zuten: zortzi musikari eta beste zenbait lagun bonboak, tapak eta gezurrezko musika-tresnak hartuta atera ziren kalera, guztira berrogei lagun, tartean Arco Iris elkarteko batzuk ere bai. Vicente Rojo izendatu zuten zuzendari. Izan zituzten, gerora, beste zuzendari batzuk ere; hala nola Bernardo Echaburua, Carlos Eyara, J. Garmendia eta oraingoa, Jose Ramón Usón.

50.

urteurrena

Ostegun Gizeneko danborrada

1974. urtean irten zen lehen aldiz, modu txukunean, Aurrera Kirol Elkarteko danborrada. Orduko kideek diotenez, danborrada paregabea izan zen hura, elkarteko ia kide guztiak irten baitziren. Orduz geroztik, ordea, asko aldatu dira gauzak eta urtetik urtera, ilusioari eta inauterietako grinari helduta, izaera eta izen propioa eraiki ditu Aurrera Kirol Elkarateak.

50 urteotako ibilbidean denetarik izan da: lehen urteetan, danborrak alokatu egiten zituen elkarateak. Danborrak erosi ondoren, danborradak ere eboluzioa izan zuen: emakumez jantzitako gizonaen majorette taldea sortu zen, aurrerago kantinerak zaldiz irteten hasi ziren eta karroza dotore bat ere egin zuten, txerri erraldoi eta Ostegun Gizeneko irudiekin. Ondoren, karroza hori Inauterietako erreginarene eta damen aukeraketaren parodiak ordezkatu zuen (orain ere egiten dute). Eta duela 10 urtetik, afa ondoren irteteari utzi, eta afa aurretik ateratzen da.

Orain, poteo garaian alaitzen ditu kaleak Aurrera Kirol Elkarateak. Eta aurten, 50. urtez egingo du gauza bera. Danborrada zahartzen ari da, baina ateratzen garen kideok hasierako ilusioari eusten diogu. Eta 50 urteko ibilbidea ospatzeko, gainera, 2024ko inauterietan, Tolosako Erraldoien Konpartsa izango dugu lagun.



Eskerrik asko Aurrera Kirol Elkarteko kide guztiei eta eskerrik asko urtetik urtera elkaratea txalotzera gerturatzen zareten tolosar guztiei.

Gora Ostegun Gizen! Gora Aurrera Kirol Elkaratea! eta GORA TOLOSAKO INAUTERIAK!

50.

urteurrena

Kalde reroak



Honen bitartez, tolosar guztiei eta gurekin ospatzera etorri nahi duten guztiei ere, poztasunez esan nahi diegu, urtero bezala, Kaldereroak badatozela Tolosara 2024. urteko inauterien berri ematera.

Harrotasunez eta zorionez, aurtengo ekitaldiaren garrantzia goraiatu nahi dugu oraingoan; izan ere, aurtengoa Urdiña Txiki kaldereroen konpartsaren 50. urteurrena.

Tolosar guztiei gure esker ona adierazi nahi diegu, haiek izan baitira urtero-urtero, alai eta umoretsu, gure konpartsako Hungariako ijitoei txalo jo eta harrera egin dietenak, urrezko urtemuga honetara iritsi arte.

Urdiña Txiki elkartetik, esker ona adierazi nahi diegu, bihotzez, urte luze hauetan, boluntario gisa laguntza eskaini diguten guztiei.

Haien laguntzari esker lortu baitugu, urtez urte, inauteri aurreko jai alai hau Tolosako kaleetan barrena zabaltzea.

Halaber, bihotzez eskertu nahi dugu, Tolosako Udalak, eta batez ere Kultura Sailak, eskaintzen



digun laguntza, inauteri zoragarri hauen antolatzaile nagusia baita. Eskertu nahi dugu, baita ere, Tolosako Udaltzaingoak urte luze hauetan gure konpartsa martxan jarri ahal izateko eskaini digun laguntza.

Azkenik, ez ditugu gure herritarrak ahaztu nahi, tolosarrak baitzarete –edo baikara– festa honen protagonista nagusiak. Herritar guztiak gonbidatzen ditugu, urtero bezala, eta jarrai dezagula beti inauterien iragarpen alai honetan parte hartzen.

Aurrekontua inauteriak 2024

Karroza eta konpartsak	47.083€
Txaranga	87.857€
Zezenak eta enbolatuak	34.147€
Emanaldi eta ikuskizunak	24.791€
Danborradak	9.431€
Argitalpenak eta komunikazioa	17.450€
Egile eskubideak	4.500€
Gastu orokorrak	43.609€

Guztira 268.868€

Egileak: Irune Elicegui eta Xabier Isasti



Txarangen egutegia

Irteera egunak

	OSTEGUN GIZENA	ZALDUNITA	ASTELEHENITA	ASTEARTITA
Aiz Orratz-Veleta		sokamuturra		sokamuturra
Arco-Iris			zezen plaza	
Kabila				zezen plaza
Sukalde		zezen plaza		
Txapel Haundi		zezen plaza		
Urdiña Txiki				zezen plaza
Alcoyano		zezen plaza		
Pintxana	egunean zehar			
Poca Tripa			zezen plaza	
San Esteban				zezen plaza
Tolosano			zezen plaza	
Ero-etxe				
Iurre				
Txinparta				
Kabi-alai	egunean zehar			egunean zehar
Arsenal				
Berazubi				
Gure kaiola			sokamuturra	
Terete txaranga				

Zerbitzuak

- | | | | | | |
|---|----------------------------------|---|---|--|---|
|  | Zezen plaza |  | Kale saltokiak |  | Indarkeria matxisten aurkako guneak
Espacios de información y atención |
|  | Jantokia
Zerkausian |  | Karrozen eta
konpartsen
ibilbidea | Otsailak 11-12 Febrero | |
|  | Sagardotegia
Lapurdi plazan |  | Aparkalekua | Informazio gunea (Trianguloan):
22:00etatik - 01:00etara | |
|  | Txosna
Gunea |  | Taxiak | Arreta gunea (ANDRAGORA -
Tolosaldeko Emakumeen Etxea):
01:00etatik - 05:00etara | |
|  | Komunak |  | Trena |  | Udaltzaingoa |
|  | Barrakak |  | Autobusa |  | Ertzaintza |
|  | Haurren eta
nerabeen
gunea |  | Anbulategia | | |



Go goan izan

- **Ongi etorri Tolosara gurekin jaiez goatzera**
Bienvenidos y bienvenidas a Tolosa a disfrutar de nuestro carnaval.
- **Jai alaiak eta dibertigarriak desio ditugu.**
Deseamos unos carnavales donde prime la alegría y diversión.
- **Hartu parte eta gozatu, baina errespetuz.**
Participa y disfruta, pero con respeto.
- **Zaindu inauteriak, neurtu bolumena. Zaratak ez dezala algara isildu.**
Cuida los carnavales. Controla el volumen. Que el ruido no acalle la risa.
- **Jokatu arduraz alkoholarekin.**
Actúa responsablemente con el alcohol.
- **Norbaiti zerbait gertatuz gero, LAGUNDU iezaiozu.**
Ayuda a quien lo necesite.
- **Zezen Plazarako sarrerarik ez baduzu, ez oztopatu txarangen eta ikusleen sarrera, eta ez sortu bultzadarik.**
Si no tienes entrada para la plaza de toros, no obstaculices la entrada de las charangas y espectadores y no crees avalanchas.
- **Inauterietan ere, birziklatu, berrerabili eta sortu zabor gutxiago. Zaindu inauteriak!**
En carnavales también recicla, reutiliza y reduce la basura. ¡Cuida los carnavales!
- **Ez oztopatu garbiketako lanak; kontuan izan, zenbaitek lan egingo dutela gainontzekook festetan ondo pasa dezagun.**
No obstaculices el trabajo del personal de limpieza. Piensa que algunos/as trabajan para que los demás podamos disfrutar de las fiestas.
- **Komun publikoak erabili.**
Utiliza los baños públicos.
- **Zerkausian jantokia dago eta Lapurdi plazan herri sagardotegia.**
Hay comedor en el Tinglado y sidrería en la plaza Lapurdi.
- **Inauterien jarraipen osoa egingo du Udalak www.tolosa.eus-en.**
Seguimiento completo del carnaval en www.tolosa.eus.
- **Tolosak EZETZ! dio indarkeria sexistaren aurrean. Joka sano. #LIBRENonahi.**
Tolosa dice ¡NO! a la violencia sexista. Joka sano. #LIBRENonahi.
- **Edozein arazoren aurrean, deitu Tolosako Udaltzaingoaren telefonora (24 orduko arreata zerbitzua): 943 67 58 58.**
Ante cualquier problema, llama al teléfono de la Policía Municipal de Tolosa (Asistencia 24 horas): 943 67 58 58.

ERASORIK GABEKO JAIEN ALDE, JARRERA AKTIBOA IZAN!

POR UNAS FIESTAS LIBRES DE
AGRESIONES SEXISTAS, ¡ACTÚA!

#LIBRENonahi

Indarkeria matxisten aurkako guneak

Espacios de información y atención

T. 747 420 488

11-12 | Otsailak
Febrero

Informazio gunea (Trianguloan)

22:00 - 01:00

Arreta gunea
(ANDRAGORAn-Tolosaldeko Emakumeen Etxea)

01:00 - 05:00

943 675 858

Tolosako Udaltzaingoa
24 ordu arreta zerbitzua

Policía Municipal de Tolosa
Asistencia 24 horas


TOLOSA
berdinzalea

JOKA SANO
Ondo pasa, pasa gabe!!!



otsailak

2

19:00

Musika Eskolako
kaldereroen
kontzertua Topicen.

Concierto de caldereros de
la Musika Eskola en el Topic.

otsailak

3

kalde re roak



10:30

Tolosako erraldoi eta buruhandiak, Tolosako dultzaineroez lagundurik. Irteera Gernikako Arbola lorategietatik.

Gigantes y cabezudos desde Gernikako arbola.



12:00

Aiz Orratz-Veleta elkarteko txaranga irtengo da elkartetik bertatik.

Salida de la charanga Aiz Orratz-Veleta.

otsailak
3
kalde-
reroak



12:30

Haurrentzako jaialdia,
Aiz Orratz-Veleta
elkartek antolatuta,
Leidor aretoan.

Festival Infantil organizado por
Aiz Orratz-Veleta en el Leidor.



otsailak

8

Oste gun Gize na





11:00

Udal Txistulari Bandak Inauterietako Zortzikoa joz egingo du ohiko ibilbidea.

Txistularis: Zortziko de Carnaval.

11:45

Kabi-Alai elkarteak pregoia emango du udaletxetik.

Pregón de Kabi-Alai desde el ayuntamiento.





12:00

**PLAZA
ZAHARREAN,
SUZIRIA JAIEN
HASIERA
IRAGARTZEKO.**


**Chupinazo en Plaza
Zaharra.**



12:00

Pintxana eta Kabi-Alai txarangen irteera, Plaza Berritik eta Plaza Zaharretik.

Charangas Pintxana y Kabi Alai desde Plaza Berria y Plaza Zaharra.



16:30

Zezen plazan zezen-festa, Pintxana eta Kabi-Alai txarangek girotuta. Ondoren, kalejira.

Vaquillas y pasacalles con las charangas Pintxana y Kabi-Alai.



19:00

Aurrera Kirol Elkartearen danborrada.

Tamborrada del Aurrera K.E.



22:30

Kontzertuak txosnetan:

Conciertos:

- Akerbeltz
- Azken Sustriak
- Balloon Frame
- Fresa Morango



otsailak

9

Ostiralean Meheta



11:30

Ozenki Txistulari
Taldearen kalejira.

Ozenki Txistulari Taldea.



16:30

Zezen plazan zezenak,
Kabi-Alai txarangak
alaituta. Ondoren,
kalejira.

Vaquillas y pasacalles con
la charanga Kabi-Alai.



19:30

**OSTIRAL MEHE
EGUNEKO
DANBORRADA.**

Tamborrada de Viernes Flaco.



22:30

Arpegi Taldeak antolatuta, Ostiral Mehe eguneko jaialdia Leidor aretoan.

Festival de Viernes Flaco en el Leidor, organizado por Arpegi.



22:30

Kontzertuak txosnetan:

Conciertos:

- MonkeyMan - Malec
- LS, Eros Krk eta Calde Seлектah
- Nikotina eta Little Martin



23:30

Jainekin txarangaren irteera.

Charanga Jainekin.

otsailak

10

Zaldu nita bez pera



11:00

Tolosako erraldoi eta buruhandiak, Tolosako dultzaineroez lagundurik. Gernikako Arbola lorategietatik.

Gigantes y cabezudos.



11:00

Aiz Orratz-Veleta elkarteko TXU-TXU Trena ibiliko da kaleetan barrena. Irteera Lapurdi plazatik.

El tren TXU-TXU de Aiz Orratz-Veleta recorrerá las calles de Tolosa. Salida: Lapurdi plaza.



11:30

Udaberri dantza taldeak antolatuta, dantzari txikien kalejira abiatuko da Trianguloa plazatik.

Pasacalles de dantzaris desde Trianguloa plaza organizado por Udaberri dantza taldea.

11:30

Musika eskolako ikasle bandaren kalejiraren irteera, musika eskolatik.

Pasacalles con el alumnado de la Escuela de Música.



12:00

Kabi-Alai elkarteko txarangaren irteera.

Salida de la charanga Kabi-Alai.



17:00

Kabi-Alai elkarteko txarangaren irteera.

Salida de la charanga Kabi-Alai.



17:00

HAUR DANBORRADA
Aiz Orratz-Veleta
elkartek antolatuta,
irteera Geltoki
kaletik.

Tamborrada Infantil de Aiz Orratz-Veleta. Salida desde la calle Geltoki.



19:00

Tolosako Danborradaren irteera Plaza Zaharretik, Numen Dantza Eskolako kosakoen parte-hartzearekin.

Salida de la Tamborrada desde Plaza Zaharra, con la participación de los/las cosacos/as de Numen Dantza Eskola.

19:30

Kontzertuak txosnetan:

Conciertos:

- Desgaraian



22:30

Kontzertuak txosnetan:

Conciertos:

- Ayvee

- Katu

- Watsufly



23:30

Oriako txaranga eta Iraunkorrek txarangak kalez kale.

Charangas Iraunkorrek y Charanga del Oria.



otsailak

11

Zal du nita



08:00

**DIANA, Tolosako
Udal Musika
Bandarekin.**

Diana a cargo de la
Banda Municipal de
Música de Tolosa.



08:45

Udal Txistulari Bandak,
ohiko ibilbidea eginez,
Inauterietako Zortzikoa joko
du.

Txistularis, Zortziko de Carnaval.



10:00

Txarangen irteera.
Salida de charangas.



otsailak **11**
Zaldunita



11:00

Plaza Zaharrear
sokamuturra Veleta
txarangak alaituta.

Sokamuturra con la charanga
Veleta en Plaza Zaharra.

11:00

**KARROZA ETA
KONPARTSEN IRTEERA.**

Salida de carrozas y comparsas.

15:45

Udal Txistulari Bandak
Idiarena joz egingo du
ohiko ibilbidea.


Txistularis realizarán el habitual
recorrido tocando Idiarena.



15:45

Burrumba elektrotxaranga
zezen plazatik Euskal Herria
plazaraino.

Elektrotxaranga Burrumba desde
la plaza de toros hasta Euskal
Herria plaza.



16:00

Kalejira Txapel Handi, Sukalde eta Alcoyano txarangekin, Plaza Zaharretik Zezen plazaraino.

Pasacalles; Txapel Handi, Sukalde y Alcoyano desde Plaza Zaharra a la Plaza de Toros.



16:30

Zezenak zezen plazan; txararak eta Udal Txistulari Banda arituko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren kalejira.

Vaquillas amenizadas por las charangas y la Banda Municipal de Txistularis.

17:00

‘Gora Bihotzak’ dantza eta kanta ikuskizuna haurrentzat Alondegia plazan. Euria egingo balu Herrikide ikastetxeko frontoian.

Espectáculo infantil ‘Gora Bihotzak’ en Alondegí plaza. En caso de lluvia, en el frontón de Herrikide.

17:30

Kontzertua txosnetan:

Concierto:

- Verde Prato

19:00

Dantzaldia Zerkausion Txapel Handi, Sukalde eta Alcoyano txarangekin.

Bailables en Zerkausia con las txarangas Txapel Handi, Sukalde y Alcoyano.



19:30

Kontzertuak txosnetan:

Conciertos:

- Laket
- Trikoma
- Etxepe
- DJ EO

22:30

Gozategiren kontzertua Plaza Berrian.

Gozategi en Plaza Berria.

23:30

Oriako txaranga eta Kalean txararak kalez kale.

Charangas Kalean y Charanga del Oria.

otsailak

12

Aste lehe nita





09:00

Txarangen irteera.
Salida de charangas.



09:00

Tarragona akordeoi
taldea Musika Eskolako
ikasleekin.

Grupo de acordeones
Tarragona con el alumnado
de la Musika Eskola.

11:00

Aisialdiko karroza eta
konpartsen irteera.

Salida de carrozas y
comparsas de tiempo libre.



11:00

Plaza Zaharrean
sokamuturra Gure Kaiola
txarangak alaituta.

Sokamuturra en Plaza Zaharra
con la charanga Gure Kaiola.





13:00

Kontzertuak txosnetan:

Conciertos:

- La jodedera



15:30

Euskadi Gazteako Jeep-a
Oria kaletik abiatuta.

Jeep de Euskadi Gaztea desde el
Oria.



16:00

Kalejira Poca tripa,
Tolosano eta Arco
Iris txarangekin, Plaza
Zaharretik zezen plazara.

Pasacalles; Poca tripa, Tolosano
y Arco Iris desde Plaza Zaharra
hasta la plaza de Toros.



16:30

Zezenak zezen plazan;
txarangak arituko dira
ikuskitzuna alaitzen.
Ondoren kalejira.

Vaquillas amenizadas por las
charangas.

17:00

EIDER + DJ Oihan Vega
Alondegi plazan.

EIDER + DJ Oihan Vega
en Alondegi plaza.

Gaztea

19:00

Dantzaldia Zerkausian,
Tolosano, Poca Tripa eta
Arco Iris txarangekin.

Bailables en Zerkausia con las
charangas Tolosano, Poca Tripa y
Arco Iris.



19:30

Kontzertuak txosnetan:

Conciertos:

- Muxutruk
- Debrass Band
- Baskbilitx
- DJ Jotatxo

23:30

Bonberenea eta
Incansables txarangak
kalez kale.

Charangas Bonberenea
e Incansables.

otsailak

13

Aste ar tita



06:00

Udal Txistulari Bandak Alborada joko du udaletxeko arkupeetan, Berdura plazan eta Felipe Gorriti Plazan.

La Banda Municipal de Txistularis tocará la Alborada en Plaza Zaharra, Berdura plaza y Felipe Gorriti plaza.



8:00

Elkarteetako txarangek alaituta, Pattar zezena zezen plazan. Ondoren, kalejira.

Toro del aguardiente y charangas.



11:00

Karroza eta konpartsen irteera.

Salida de carrozas y comparsas.



11:00

Plaza Zaharrean sokamuturra Aiz Orratz-Veleta txarangak alaituta.

Sokamuturra en la Plaza Zaharra amenizada por la charanga Aiz Orratz-Veleta.



otsailak
13
Astearrita



12:00

EUSKAL HERRIA PLAZAN TXARANGEN BILKURA; San Esteban, Arco iris, Sukalde eta Txapel Handi txarangen eskutik. Euria egingo balu, Berdura plazan. Ondoren kalejira Kabi Alaraino.

Alarde de charangas en Euskal Herria plaza. Si llueve, en Berdura plaza.



15:45

Udal Txistulari Bandak Idiarena joz egingo du ohiko ibilbidea.

La Banda Municipal de Txistularis realizará el recorrido tocando Idiarena.



16:00

Kabila, Urdiña Txiki eta San Esteban txarangekin, Plaza Zaharretik zezen plazara.

Pasacalles desde la Plaza Vieja a la Plaza de Toros.



16:30

Zezenak zezen plazan; Txarangak eta Udal Txistulari Banda arituko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren, kalejira.

Vaquillas amenizadas por las charangas y la Banda Municipal de Txistularis.



19:00

Dantzaldia Zerkausian Kabila, Urdiña Txiki eta San Esteban txarangekin.

Bailables en Zerkausia con las charangas Kabila, Urdiña Txiki y San Esteban.



23:30

Incansables txarangaren irteera.

Charanga Incansables.

otsailak

18

Piñata

11:00

Poca-Tripa txaranga lurreamendi egoitzara joango da.

Visita de la charanga Poca-Tripa a la residencia lurreamendi.



11:30

Musika Eskolako ikasleen banda konpartsa kaleetan zehar.

Comparsa de la banda del alumnado de la Musika Eskola, por las calles.



12:30

Kontzertua Leidorren: Tolosako erraldoi eta buruhandiak, musika eskolako ikasleak eta The Herrikide's musika taldea.

Concierto de la comparsa de gigantes y cabezudos de Tolosa, alumnado de la escuela de música y del grupo de música The Herrikide's en el Leidor.



18:30

Suzko zezenak Plaza Zaharrea eta Solana kalean.

Toro de fuego en Plaza Zaharra y Solana kalea.



Kabi Alai
kuttun
2024

Aiz Orratz- Veleta elkartea

Haurrak inauterietan ere protagonista izatea. Horixe izan da, urte luzez, eta besteak beste, Aiz Orratz-Veleta elkartetik gure jai kuttunei egin diegun ekarpena.

Helburu horrekin antolatu izan ditugu duela sei hamarkada baino lehenagotik haurrentzako jaialdia, mozerro eta marrazki lehiaketak, eta Zaldunita bezperako haurren danborrada.

Luis Colladok sortu zuen haurren danborrada, 1962. urtean. Modu xumean hasi ziren; pentsa, lehen urteetan norberak finantzatzen zituen jantziak. Pixkanaka egitarauan egonkortu zen, 600 partaide inguru izateraino.

Herriko elkarte gastronomiko guztien ordezkaritza bat biltzen zuen lehen ekitaldia izan zen, gainera. Elkarteen sare zabala dugu gure herrian, eta ederra da elkarren arteko laguntza gertutik ikustea. Batzen gaituen jaia baita inauteria.



Gure elkartearen barruan ere, elkarlana izan da hamarkada hauetan ekintza guztiak aurrera eramateko giltza. Elkarteko bazkideez gain, zenbat eta zenbat jenderen laguntza izan ote dugun: musikari, jostun, pailazo, dantzari... haiekin ere partekatu nahiko genuke sari hau.

Eredu hori ere saritu du Kabi Alai elkarteak Inauterizale Kuttun izandatura. Eta elkarlan horri eustea ezinbestekoa da aurrera egin dezagun. Halaxe jarraitu nahi baitugu, beste horrenbeste urtez, etxeko txikienei inauterizaletasuna sustatzen.

www.tolosa.eus

Jarraitu
inauteriak
zuzenean

[#tolosakoiñauteriak](https://www.tolosa.eus/#tolosakoiñauteriak)

